

## EAEko gazteen langabezia-tasa % 30,1ekoa izan da 2014ko lehen hiru hilabeteetan


**16 eta 29 urte bitarteko lagunen langabezia-tasa biztanleria osoarenaren halako bi da, oraindik ere**

**Maiatzaren 1a Lanaren Nazioarteko Eguna** dela-eta, EAEko gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokia](#)k. Horretarako, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) inkestaren 16 eta 29 urte bitarteko biztanleei buruzko datuak erabili dira. EUSTATEk, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin prestatzen du BJA.


Oraingoan, azterketan azken hiru urteetako lehen hiru hilabeteak alderatu dira. Ikuspuntu honi esker, langabezia-tasaren bilakaera azter daiteke, urteko sasoi bakoitzari dagozkion efektuak bazter utzita.

Enplegurik ez duten baina lan egiteko prest dauden eta lana aktiboki bilatzen ari diren (hau da, azken lau hiletan lana bilatzeko izapideren bat egin duten) pertsona aktiboaren ehunekoa adierazten du **langabezia-tasak**. Ez dira barne hartzen lan bila ez dauden ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasak 7 puntu egin du gora azken bi urteetan: % 23,2 zen 2012ko lehen hiru hilabeteetan eta % 30,1ekoa izan da 2014ko lehen hiru hilabeteetan. Biztanleria orokorraren langabezia-tasa apalagoa da: % 12,1ekoa izan zen 2012ko lehen hiru hilabeteetan eta % 15,5ekoa 2014ko lehen hiru hilabeteetan. Gazteen langabezia-tasa, gaur egun, biztanleria osoarenaren halako bi da, ia.




Gazteen langabezia-tasa sexuaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke gizonen eta emakumeen tasek antzeko joerak dituztela, gizonen tasak emakumeenak baino altuagoak badira ere. Gizon gazteen langabezia-tasa % 31,6koa izan da 2014ko lehen hiruhilekoan; emakume gazteena, aldiz, % 28,7koa. Azken urtean, mutilen langabezia-tasa bere horretan geratu da, eta neskena areagotu, beraz, aldeak murriztu egin dira duela urtebetetik hona.



Azkenik, esan beharra dago lurralde historikoek joera desberdinak izan dituztela, azken hiru urteetako lehen hiruhilekoko datuak erkatzen baditugu.

Batetik, Araban bizi diren gazteen langabezia-tasa bikoiztu egin da 2012tik aurrera: urte horretako lehen hiruhilekoan langabezia-tasa % 16,8 izan zen; 2014an, ordea, % 33,8. Bestetik, Bizkaiko tasa 2013an egon zen bere gailurrean, % 34,1ean, eta 2014ko lehen hiruhilekoan % 29,8ra jaitsi da. Azkenik, Gipuzkoak antzeko langabezia-tasak izan zituen 2012ko eta 2013 lehen hiruhilekoetan, baina gora jo dute 2014ko lehen hiruhilekoan, % 28,7raino, hain zuzen ere.



Datuok [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Lana izeneko atalaren “Jarduera, okupazioa eta langabezia” azpiatalean, hain zuzen ere.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

